

## TRANSMEDIA BIZIPENAK EGITURATUZ: “TIRABIRAK / TIRAS QUE AFLOJAN” PROIEKTUAREN KASUA

Edorta Arana Arrieta  
Libe Mimenza Castillo  
Bea Narbaiza Amillategi

Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikus-entzunezko Komunikazioa Saila / Universidad del País Vasco,  
Dpto. Comunicación Audiovisual

### Laburpena

*TIRABIRAK*<sup>1</sup> proiektuan aztertzen da, 1977 eta 2016 bitartean, egunkarietan argitaratutako binetek euskal gatazka nola jorratzen duten. Ez da baina, ikerketa-proiektu soil bat baizik eta aukera ezin hobe iragan hurbilaren inguruko hausnarketa eta berrikusketa kritikoa egiteko eta bere horretarako euskarri eta lengoia desberdinak erabiliz. UPV/EHUko EMAN ikerketa taldeak, Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioarekin eta EITBrekin batera osatutako lantaldeak gatazkaren errepresentazioak diren binetei, marrazkilarien iritziei eta testuinguruari buruzko lana burutu du. Gainera, diseinatu du plangintza oso bat prozesuan bildutako, tira grafikoak, elkarrizketak eta momentu historikoari buruzko informazioa jendarteratzeko. Transmedia ikuspegiarekin egituratutako proiektuan bideoak, aplikazio informatikoak, argitalpenak eta aurrez aurreko ekitaldiak antolatuta dira. Proiektua gauzatzekoan bi izan dira produktu esanguratsuenak: erakusketa ibiltaria eta dokumental interaktiboa. Lehenarekin Euskal Herriko hainbat hiri eta herri bisitatu dira maila fisikora ekarri jendea eta bineten arteko kontaktua: Iruñea, Bilbo, Donostia, Errenteria, Gasteiz... Dokumental interaktiboaren bidez, lekua eta denbora mugez harago, berrogei urte hauetako 1.200 bineta jartzen dira ikusgai eta horrekin batera Forges, Zaldieroa, Axi, Peridis, Tasio, Oroz ala Zulet bezalako marrazkilarien elkarrizketetan murgiltzeko aukera eman. Aniztasuna eta ikuskera zabalarekin eraikitako proiektuak euskarri fisiko eta birtualak konbinatzen ditu, erabiltzaileari kontaktu moduak ugarituz eta bizipena aberastuz.

**Hitz-gakoak:** BINETAK; EGUNKARIAK; GATAZKA; TRANSMEDIA; PARTE HARTZEA

## CONSTRUYENDO EXPERIENCIAS TRANSMEDIA: EL CASO DE “TIRABIRAK / TIRAS QUE AFLOJAN”

### Resumen

El proyecto *TIRABIRAK* analiza la representación del conflicto vasco en las viñetas de los diarios, durante los años 1977 y 2016. Sin embargo, es más que un proyecto de investigación, ya que propone una reflexión crítica y una relectura de nuestro pasado reciente y lo hace a través de plataformas y lenguajes diversos, lo que permite el acceso de la población a través de distintos canales. El grupo de investigación EMAN, la Fundación Donostia/San Sebastian 2016 y EITB se han unido en este proyecto que ha recopilado un importante número de viñetas, entrevistas con los dibujantes más significativos (Forges, Zaldieroa, Axi, Peridis, Tasio, Oroz, Zulet y otros) e información sobre el contexto social y político de las últimas cuatro décadas. Además ha diseñado un conjunto de plataformas y medios a través de los que socializar la información acumulada y permitir un diálogo abierto y plural. El diseño transmedia que sustenta *TIRABIRAK* utiliza videos, aplicaciones informáticas, actividades cara a cara y escritas y de este modo des-

pliega en toda su complejidad la historia del conflicto vasco en las viñetas. El proyecto tiene dos bases fundamentales: la exposición física y el documental interactivo. La primera de ellas, al ser itinerante ha recorrido las capitales y algunos pueblos vascos (Pamplona, Bilbao, Donostia-San Sebastián, Errenteria, Vitoria-Gasteiz...), mostrando una selección de las viñetas más significativas y otros contenidos audiovisuales e informáticos y que conforman una experiencia abierta y rica para los visitantes. En cuanto al documental web, es una plataforma virtual en la que se pueden visionar todos los contenidos de las entrevistas, acceder al archivo digital que contiene cerca de 1.200 tiras gráficas e información que contextualiza el quehacer de los periódicos y de las viñetas. TIRABIRAK es un proyecto creativo plural y abierto, que ha combinado las plataformas física y virtual, multiplicando los canales de acceso y ofreciendo a sus usuarios una experiencia rica y retadora.

**Palabras clave:** VIÑETAS; PERIÓDICOS; CONFLICTO; TRANSMEDIA; PARTICIPACIÓN

## BUILDING TRANSMEDIA ENGAGEMENT: THE CASE OF “TIRABIRAK / TIRAS QUE AFLOJAN”

### Abstract

*TIRABIRAK* is a transmedia project that analyzes how the newspapers cartoons depict the Basque conflict, during 1977 and 2016. However, it is more than a research project, as it proposes a critical approach to the subject and a re-reading of our recent past. In doing so, it uses different platforms and communication languages, allowing public access through different channels. The research group EMAN, Donostia/San Sebastian 2016 Foundation and EITB have joined efforts in this project that has compiled a number of daily papers cartoons, interviews with the most significant cartoonists (Forges, Zaldieroa, Axi, Peridis, Tasio, Oroz, Zulet and others) and information on the social and political context of the last four decades. The project has also designed a set of platforms and means through which socialize the information gathered and allow an open and plural dialogue among users. The transmedia design that supports TIRABIRAK uses videos, applications, face-to-face activities and printed information offering a wide picture of the conflict in the Basque Country in the recent years through the cartoon and their authors. The project has two main elements: an itinerary exhibition and a web-based documentary. The first one has already toured the capitals and some Basque towns (Pamplona, Bilbao, Donostia-San Sebastian, Errenteria, Vitoria-Gasteiz ...), showing a selection of the most significant cartoons and other audiovisual contents, offering an open and rich experience for visitors. As for the webdoc, it is a virtual platform where the user can watch all the contents of the interviews, access the digital file containing about 1,200 political cartoons and information that contextualizes the work of the newspapers and of the cartoonists. TIRABIRAK is a creative plural and open project that has combined physical and virtual means, multiplying access channels and offering its users a rich and challenging experience.

**Keywords:** CARTOONS; NEWSPAPERS; CONFLICT; TRANSMEDIA; PARTICIPATION

---

Arana Arrieta, Edorta, Libe Mimenza Castillo & Bea Narbaiza Amillategi. 2016. "Transmedia bizipenak egituratuz: 'Tirabirak/Tiras que aflojan' proiektuaren kasua". *AusArt* 4(2): 93-112 DOI: 10.1387/aus-art.17191

## 1. TRANSMEDIA KONTAKIZUNETAN BARRENA

“*The future of storytelling*” izeneko txostenean, Latitude kontsultari-enpresak (2013) dioenez, narratiba forma berrietan murgilduta gaude erabat. Ez da bakarrik teknofiloen kontua, erabiltzaile gazte eta konpultsiboena ala fikziozko serietara mugatzen den efektoa. Istorioak sortu, zabaldu eta bizitzeko moduak aldatu dira eta horrek eragina du genero, euskarri eta erabiltzaile mota guztiengan.

Digitalizaziotik eta konbergentzia mediatikotik eratorritako egoeran bizi da komunikazioa gaur egun. Lehengo paradigma irauliz, aldatu dira komunikazioa gauzatzeko prozedurak, erabiltzaileen portaerak eta beharrak, eskura ditugun informaziorako eta komunikaziorako tramankuluak, ekoizpen bitartekoak, edukiak zabaltzeko moduak...

Garai bateko hartzaile soilaren orde erabiltzaile aktiboak eta parte hartzaileak ditugu eta beraz, inoiz baino beharrezkoagoak dira plataforma anitzetarako eginiko kalitatezko edukiak sortzea eta eskaintzea, zabalpena era integratuan kontsideratzea, produktuak parte-hartzea aintzat hartuta diseinatzea edota, edukia garatzerakoan, komunikazioaren ardatzean kokatuta dauden agenteen arteko norabide anitzeko harremana ahalik eta egokien ustiatzea.

Aipatutako Latituderen txostenak sei iradokizun nagusi zehazten ditu narratiba berriak lantzen dituztenentzako:

- Istorioaren edukiak eta audientziaren arteko loturak estutu
- Kontakizuna zabaltzeko moduak, lekuak eta momentuak aniztu
- Narratiba forma berriak erabiltzen hasi gaur bertan
- Bizitza erreala ere istorioa garatzeko beste euskarri bat kontsideratu
- Arretaz planifikatu bigarren (eta hirugarren) pantailak
- Kontuan izan era askotakoak direla audientzia osatzen duten pertsonak eta bakoitzak engaiatze-forma desberdina izan dezakeela.

Ildo berari jarraiki, Mimenzak, Aranak eta Narbaizak (2016) azpimarratzen dutenez, alboratu egin beharko dira ikuspegi murrizta duten kontakizunak eta bultzatu narratiba forma zabalak: edukia zaindu, medio eta euskarri anitzez osatutako proiektuak gauzatu, istorioaren mamia eta hedapena integratu, eta erabiltzailea engaiatzeko eta aktibatze moduak lehen unetik diseinatu. Transmedia komunikazioaren garaian gaude. Eta transmediatasuna gaur

egun edozein komunikazio jardueretan dago presente, kontakizun oro hainbat kanal mediatikotan hedatzen baita eta elkarreragina erraztuko duten bideak zabaltzen baitira. Notiziak, iragarkiak, ekimen artistikoak ala mugimendu sozialak bultzatutako ekintzak izan, medio eta lengoaia asko erabiltzen dira, besteak beste: webgunea, argazkiak, papera, ikus-entzunezkoa, sare sozialak, zuzeneko jarduerak... edo beste edozein, beti ere kontakizuna modurik egokienean jendearekin bat egiteko asmoarekin. Eduki-sortzaileak, multimediatasun hori kontuan izango du, hasiera hasieratik. Jakin badaki-eta, audientzia osatzen duten pertsonak ahal eta nahibeste bide eta gailu erabiltzen dituztela notizia, musika bideoak, pelikula edo telebista saio horretara heltzeko, edonondik eta ondoen datorkien unean. Gainera kontuan izan behar da erabiltzaile digitalek murgiltze maila handiagoko esperientziak eskatzen dituztela: iraultza teknologikoaren testuinguruan edukia ez baita era isolatuan sortzen, ezta kontsumitzen ere; aitzitik, istorioa osatzen duen testu bakoitza osotasunaren parte eta osagarri da eurentzat. Hartara, eszenategi (berri) honetan, tipologikoki eduki berriak sortzen dira, eta ondorioz, horiekiko erabiltzaileen jarrera zein portaera desberdinak azaleratzen dira.

Hain zuzen ere, komunikazio-eredu berri eta integratuaz mintzatu zen Henry Jenkins transmedia narratiba esamoldeari sendotasuna emanez: *“Kontakizun transmedia bat askotariko plataforma mediatikoren bidez garatzen da, eta horietako bakoitzean sortutako edukiak ekarpen berezitua egiten dio osotasunari. Hortaz, medio bakoitzak bere ezaugarriei dagokiona egiten du (...) eta kontakizunerako sarrera puntu bakoitza independentea da (...) Medio ezberdinetan zeharreko ibilbideak esperientzia sakona eragiten du eta, era berean, gehiago kontsumitzeko gogoia pizten du”* (Jenkins 2008, 101).

Transmediatz ari garenean beraz ez gabilta, esaterako, telebista saio ospetsutik eratorritako liburua merkaturatzeaz ala pelikula bateko pertsonaiak jostailu ala *merchandising* produktu gisa ekoitzi eta saltzeari buruz. Euskarri batetik besterako egokitzapen soila baino gehiago da, transmediatasunak komunikazio estrategia osoa eta planifikatua dauka atzetik: hainbat medio eta lengoaiatz baliatuz garatutako narrazio mundu bat eraiki eta erabiltzaileari sarbide desberdinak eskaini engaiamendua lortzeko, baita interaktibitatea bultzatzeko ere. Mintzaira, medio edo plataforma desberdinez osatutako kontakizun oso baten ekoizpen-prozesua eta jendearekin bat egiteko estrategia barnebiltzen ditu transmedia narratiba kontzeptuak (Scolari 2013, 25).

Beraz, transmediatasunak bi ardatz ditu: alde batetik, hainbat bitarteko zein plataformaren bidez zabaldutako kontakizuna da; bestetik, audientziaren

parte-hartze aktiboa du ezaugarri. Horri gehitu behar zaio proiektuaren alderdi guztien autonomia (eskuorria, liburua, txio-sorta, ikus-entzunezkoa...), transmedia kontakizunetan, euskarri bakoitzean istorioa narratiboki beregaina baita. Izan ere, gero eta medio gehiagoz ehundutako bizipenean murgilduz gero, orduan eta kontakturako aukera gehiago zabaldu eta gozamen, lotura emozional edo inplikazio handiagoa lortuko du erabiltzaileak. Praktika hori arrakastatsua izateko, bitarteko bakoitzeko edukiaren errealizazioa independentea edota autonomoa izan behar da; horrela, hedabide guztien osagarritasuna alde isolatuen gehikuntza baino zerbait gehiago izan dadin, hots, kontakizun unibertso propio bat osa dezan (Pratten 2011).

Transmediatasuna bereziki fikziozko eremu narratiboetan garatu -eta gauzatu- da, izan *Star Wars*, *The truth about Marika* edo Disneyrena bezalako produkzioetan baina ez da horretara mugatu. Kontakizun faktualetan ere sekulako garrantzia hartu du adibidez artean, dokumentalgintzan edo kazetaritzan. Azken honi dagokionez, baina gainontzekoetarako ere balio duena, Kevin Moloneyk bere blogean argitaratutako artikuluan dioenez: "*Lantzen ditugun istorioak nabarmendu eta gailentzeko audientzia ere geureganatu behar dugu. Publiko berrietara iristeko eta horietako norbanako bakoitzak hainbat modutan parte hartzeko aukera galtzen dugu, hain zuzen, medio guztietarako istorio bera proposatzen dugunean. Zergatik ez hedabide ezberdin horiek guztiak erabili eta bakoitzaren abantailak baliatu istorio konplexuak kontatzeko? Eta zergatik ez dugu diseinatzeko kontakizun bakar moduan hainbat hedabidetan hedatuko den istorio kohesibo bat?*" (Moloney 2011).

Hurrengoko ataletan aztertuko dugunez, transmedia ikuskera eta planifikazioa erabili ditugu TIRABIRAK proiektua garatzerakoan. Alegia, egunkarietako binetetan egiten den euskal gatazkaren errepresentazioaren kontakizuna diseinatzekoan kontuan izan dugu *transmedia storytelling*. Urte luzez bizi izandako bortizkeria gai hartuta, marrazkilariek sortutako tirekin eraikitako unibertsoa egituratu eta medio desberdinen bidez plazaratu dugu. Lehenengo, TIRABIRAK proiektuaren gaia, abiapuntuko zergatiak eta helburuak azalduko ditugu eta gero ikusiko dugu nola joan garen gauzatzen diseinu orokorra eta bere baitan kokatu ditugun euskarri eta eduki desberdinak.

## 2. EGUNKARIETAKO BANDAK, GATAZKAREN IRUDIKAPENA

Donostia/San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburutza eta zehazki Bakearen Itsasargiaren eskariz, egunkarietan argitaratzen diren zinta grafikoak ikertzeari ekin genion. Euskal Herrian urte luzez bizi izan dugun bortizkeria forma desberdinen errepresentazioak nola egiten diren jakin nahian arakatu ditugu egunkari garrantzitsuenak eta hauetan marrazkiak argitaratzen dituzten bineta egile esanguratsuenak.

Proiektuari TIRABIRAK izena jarri genion euskaraz, adierazteko binetek askotan egoera tenkatu egiten dutela (sokari tiratuz bezala) eta,aldi berean, bestetan nahiago izaten dutela lasaitze aldera jotzea eta arazoak umorez begiratzea (bira eginez). Gazteleraz ere, hitz-joko baten bidez, "*Tiras que aflojan*" esamoldea erabili dugu izenburu gisa. Baina gure zeregina ez da izan bakarrik ikerketa-lan batena, horretatik asko duen arren. Hasierako helburu nagusien artean beti egon da proiektuari izaera transmedia ematea eta, bere horretan, medio eta plataforma ugari erabiltzea, bineten atzetik dauden gatazkaren inguruko istorioak kontatzeko eta gure xede-taldearekin bat egiteko. Gainera, eguneroko tira horien artetik euskal gatazka jorratzen dutenak aukeratu ditugunez, horrek bidea eman digu eguneroko gertakizunei begiratu kritiko eta satirikoa ematen diotenak aztertzeko. Modu horretara, azken lau hamarkadetako (1977-2016) ibilbide gatazkatsuen berrikuspena egiteko eta horren gaineko gogoeta bideratzeko aukera izan dugu.

Arestian aipatua bezala, Franco hil ostetik eta gaur arte, gure kioskoetan erosi daitezkeen egunkarietan argia ikusitako tira omen komikoetan konfrontazioa, bortizkeria eta borroka forma desberdinek izan duten agerpena jorratu ditugu proiektu honetan.

Dozenatik gora egunkari miatu ditugu, besteak beste: El Correo, Diario de Navarra, Egin/Gara, Euskaldunon Egunkaria/Berria, Deia, El País edo ABC. Iker-gaia bortizkeria izanik, urte luze hauetan bizi izandako 150 gertakari politiko eta sozial garrantzitsu erabili ditugu binetak aukeratzeko orduan. Berri nagusi izan diren gertakari horien testuinguruan marrazkilariek eginiko binetak aukeratu ditugu eta gure proiektuan bildu. Aztergai izandako 30.000 binetetatik, 3.200 inguru identifikatu ditugu euskal gatazkaekin zerikusia zutelako. Bineta kopuru handi horretatik, ia erdia gure artxibo digitalean dago ikusgai eta bostehun batek erakusketa fisikoa osatu dute.

Marrazkilariak eta binetak dira gure lanaren protagonistak eta horiekin osatu dugu TIRABIRAK proiektua. Hauek dira, besteak beste, egitasmo honen baitan aurkitu daitezkeen bineta egileak: Zaldieroa, Máximo, Zulet, Peridis, Tasio, Forges, Máximo, Oroz, Olariaga, Ripa, Mattin, Ricardo & Nacho, Martín Morales, Aós, Martintxo, Ramón, Iñaki & Pintu, Dusón, Idígoras & Pachi, Mingote, Angel & Guillermo, Jon Zabaleta, Michel Iturria, Juan Carlos Eguilleor, Romeu, Puebla, Rafa Ramos, Adur, Antón, Axi, Endika, Eneko, Ferreres, Gallego & Rey, Jon Pedro, Koldo, López & Pérez, Mad, Mokordo, Ori, Peli, El Perich, Ricardo, Romeu, Tulino eta Xim

Ikerketa prozesu osoa burutzeko UPV/EHUko EMAN iker-taldea aritu da eta jakintza arlo oso desberdinetik eginiko begiradak erabili ditugu: zientzia politikoa, diseinua, soziologia, ikus-entzunezko komunikazioa. Ia bi urteko zeregina izan da eta bidelagun izan ditugu Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioko kideak, EITBko zenbait profesional eta beste hainbat aditu, bakoitzak bere ezagutzaremutik proiektuari ekarpena eginez.

TIRABIRAK egitasmoaren bultzatzaileek hasieran sinatutako hitzarmenean adierazten denez (2015)<sup>2</sup>, gertuko historiaren errepaso kritikoa egiteko, paperean agertutako zinta komikoen erakusketa ibiltaria antolatzeaz gain, aurrez aurreko zein teknologia berriez baliatuz jarduera ugari burutzeko asmoa izan du proiektu parte-hartzaile, ireki eta interaktibo honek.

2014ko udazkenean, lehen pausuak ematen hasi zen proiektuaren testuingurua, helburuak eta motibazioak azalduko ditugu segidan, modu laburrean.

Jakina da Euskal Herrian gatazka ziklo luzeetako bat bizi izan dugula 70.eko hamarkadatik hona. Frankismoaren azken urteetan eta diktaduraren amaierarekin batera protestaldi zabala eta sakona zabaldu zen gurean. Aldarrikapen anitz kaleratu zen gure herrian -sozio-ekonomikoak, politikoak edota kulturalak-, eta eskaera horiek barneratzeko sistema politikoak zituen zailtasunak arazo ugalketa ekarri zuen. Elkarreagin liskartsu horretan, gizarte eragile eta mugimendu, erakunde eta alderdiak, euskal herritarrak, finean, egon dira murgilduta.

Gatazka horien artean, bereziki Euskal Herriaren auzi nazionalaren inguruan ardaztu dena azpimarratuko dugu. Izan ere, adierazpen bortitzen bitartez gauzatu baita askotan: ETArein jarduera armatuak berak, batetik, eta, bestetik, erakunde horren eta estatuko instituzioen arteko elkarreagin bortitzak azken hamarkadotako ibilbide historikoa ezaugarritu dute.

Horrekin batera, urte hauetan zehar gatazkaren alde bakarreko irakurketak nagusitu dira eta askotan euskal herritarrek errealitatearen ikuspegi partzialak bakarrik jaso dituzte. Ez dira beste herritar askoren ideiak, jarrerak, sentipenak sakonki ezagutu. Aldi berean, gazteek ez dute iragan hurbilekoaren berri edo partzialki bakarrik ezagutzen dute.

Elementu horiek kontuan hartuta, TIRABIRAK proiektuaren helburuztat markatu ditugu ezagutza partekatzea -"hau bizi izan dugu/dute"-, horretarako formato desberdinak baliatuz: erakusketa, bideoak, liburua, webgunea... Azken finean, egunkarietako tirtetan kaleratu diren mezuen bidez, gure historia hurbilenari so egitea proposatzen dugu proiektu honekin.

Iker-lanari ekiterakoan markatu genizkion egitekoetan badago beraz euskal gatazkak(ar)en (ber)ezagutza bultzatzea; eta, horretarako, herritarrari aukera eman erakusketaren bitartez haren inguruko irakurketa kritikoa egin dezan, auzi honen alde guztiak kontuan hartuz. Gatazkaren birtualitatea ukatu gabe eta gatazkaren kudeaketa egoki/desegokiak hausnarketa librearen oinarrian jarritz.

Bigarren helburua da ezagutza partekatu horretan oinarrituta, hausnarketa kritikoa eta denon arteko gogoeta bideratzea. Beraz, proiektuaren nahia ez da herritarren alekzionamendua edota ikusmolde moral sinpleegiak planteatzea. Proiektuak interpelatu egiten du, hausnarketa kritikorako beta eman, begirada hau ala bestea inposatzeaz urruti.

Azkenik, ildo editorial ezberdineko egunkarietan argitaratu diren tira grafikoaren bidez, aktualitatearen eta egunkariaren eginkizunari buruzko eztabaida publikoa erraztea ere bada egitasmo honen jomuga.

Motibazioari dagokionez, eta xede-taldearekin lotuz, proiektuak bi hartzailere potentzial izan ditu bere abiapuntutik. Batetik, gazteak -unibertsitateko ikasleak, bereziki-, eta horretarako erakusketa gune garrantzitsuak diren euskal unibertsitateetako kanpusak zeharkatu ditu. Umore grafikoaren bidez beraiengana heldu eta gure herriaren historia hurbila ezagutzeko parada eman modu arin, erakargarri eta didaktikoan. Era berean, ordea, gertakari horiek bizi izan duen belaunaldikoei (40 urtetik gorako gizon-emakumeei) ere bide emanez gaur egungo "betaurrekoak jantzita" gatazkaren irudikapen zehatz hori berrikusteko eta horren gainean hausnartzeko.



Gainera, hurrengo pasarteetan zehaztuko dugun moduan, gatazkaren kontakizuna hainbat euskarri eta mediotara zabaldu nahi izan dugu komunikazioa errazteko eta gaur egungo kultur kontsumoak askotarikoak direnez, pertsona bakoitzak bere bidea erabili dezan. Horretarako, behar beharrezkoa zen proiektuari zabalera eta sakonera berriak ematea eta zeregin horretan transmedia ikuspegiak sekulako aukerak eskaintzen ditu.

Atal hau amaitzeko, gogora ekarriko dugu TIRABIRAK proiektua 2016ko otsailean plazaratu zela Bilbon lehen erakusketa zabalduaz bat. Harez gero, euskal hiriburu, hiri eta herri ugarian ikusi ahal izan da eta orduz geroztik erabilgarri daude sareko errekurtsoak: webgunea, dokumental interaktiboa, artxibo digitala, ikus-entzunezkoak, bisitaldi birtuala, e.a.

Lehen ere esan dugun bezala, proiektua gauzatzekoan ikerketa taldeko kideekin batera lanean aritu dira ikus-entzunezko ikasketak burutzen dabiltzan ikasleak, gizarte eta komunikazio zientzietako irakasle eta ikertzaileak eta eremu profesional desberdinetako kolaboratzaileak. Hauekin guztiekin, egunkarietako banda grafikoen azterketara alde askotatik eta ikuspegi desberdinetatik hurbildu gara. Produktu kultural gisa, gero zehaztuko dugun bezala, ate ugari zabaltzen ditu ikus-entzuleak, bisitariak eta erabiltzaileak adin, gustu, jatorri eta jarreraren arabera murgildu daitezzen *work in progress* izaera duen proiektuan.

### 3. KONTAKIZUNAREN PLANGINTZA ETA PROIEKTUAREN ARKITEKTURA

Egunkarietako zinta grafikoetan euskal gatazka irudietara nola eramaten den jorratzen duen proiektua da TIRABIRAK izeneko hau. UPV/EHUko EMAN ikerketa taldeak gurean bizi izandako biolentziaren berrikusketa kritikoa proposatzen du, bestearen sufrimenduaren berri edukiz, elkarbizitzarako oinarriak eraiki asmoz.

Hiru izan dira proiektua aurrera ateratzekoan kontsideratu izan dituen elementuak: testuinguru politiko-soziala, egunkarietan argia ikusi duten binetak eta marrazkilariak.

Lehenari dagokionez, alegia, Euskal Herriko historiaren azken berrogei urte luzeak kontuan hartuz, eta bereziki Francoren heriotza eta Deia eta Egin egunkariaren sorreratik abiatuta, 2016 artekoan zentratu gara. Ez dira gutxi izan urte hauetan gatazkarekin zerikusia daukaten gertakariak eta horietatik 150 bat izan dira gaia kokatu dutenak. Garrantzi informatiboaren arabera aukeratutako gertakari horien inguruan plazaratutako binetek osatzen dute aztergaia eta proiektu osoaren mamia: atentatuak, hilketak, ilegalizazioak, torturak, mobilizazioak, konfrontazio politikoa, su-etenak...

Gainera, bineta politikoak aukeratu ditugu egunkarietako beste eduki batzuk albo batera utzita. Izan ere, interesgarria iruditu zaigu ikustea zinta grafiko horietan euskal gatazkak zenbateko agerpena duen eta nolakoak diren jorratutako gaiak, pertsonaiak, ikuspuntuak, gertakarien deskribapena eta abarrak.

Azkenik, bortizkeria forma desberdinen errepresentazio grafikoa aztertzerakoan, oso garrantzitsua izan da egileen pentsamoldeak jasotzea. Hori dela-eta, produktuak aztertzeaz gain, egileen iritziak jaso ditugu.

Azterketarako erabili ditugun hiru elementu hauek, berehala ikusiko dugun moduan, kontakizuna egituratzeko erabili ditugun euskarri guztietan daude presente, izan fisikoak (erakusketa, liburua edo aurrez aurreko ekitaldiak) zein baliabide birtualetan: webgunea, dokumental interaktiboa ala artxibo digitala.

Kasu guztietan, nahi izan dugu xede-taldea erakartzea sarbide eta lotura puntu asko eskainiz. Alegia, pertsona bakoitzak dituen gustu, interes edo medio kontsumoaren arabera TIRABIRAK proiektuaren istorioan barneratu ahal izatea. Eta hori egitea, esaterako, erakusketa ibiltaria bisitatuz eta bertan kokatuta dauden binetak, bideoak ala errekurtsio informatikoak erabiliz. Baina gainera, erakusketa ibiltariaz gain, euskarri informatikoetan eraiki dugu eskaintza zabal eta osatua: bisita birtuala, webdoka, artxibo digitala eta webgunea, besteak beste. Sarrera ugari irekitzeaz gain, beraz, euskarri desberdinen arteko lotuneak eta gaian sakontzeko geruzak eraiki ditugu. Beste era batera esanda, erakusketa fisikoarekin asetu ez denak, sarean eskura ditu beste hainbat eduki eta baliabide. Kontrara, eta adibide gisa, sare sozialen bidez TIRABIRAK proiektuaren berri izan duenak, bisitaldi birtuala egin ahal izango du eta hortik aurrera, esaterako, artxibo digitalean dauden bineta guzti-guztiak ikusi (erakusketa fisikoan baino hiru aldiz gehiago daude euskarri digital horretan) ala bideoak interneten bidez gozatu. Euskarrien arteko zubi hauek oso ohikoak izaten direa transmedia ikuspegiarekin eraikitako proiektuetan xede-taldea erakartzeko eta erabiltzaileen engaiamendua lortzeko.


Horrezaz gain, modu konbinatuan euskarri fisikoez zein birtualez baliatzearen arrazoiak sinpleak dira: proiektua zabaltea denbora-mugak eta lotura espazialez harago. Era horretan, 2016an plazaratua izan den proiektua eta fisikoki urte horretan ikusgai izan dena, internet bidez betirako egongo da zabalik. Esan dugun bezala, gainera, Euskal Herriko hainbat hiriburu eta herri<sup>3</sup> handi bisitatu ditu erakusketa fisikoak (eta hauen inguruan eratu dira ekintza osagarriak: mahainguruak, elkarrizketak, ikastaroak...) baina euskarri birtualen bidez nonnahitik konektatu ahal izango dira bisitariak, eta noski, erosoagoa zaion internetarako lotura duen gailua erabiliz.

Beraz, TIRABIRAKekin bat egiteko baliabide ugari irekiz, euskarri desberdinen arteko loturetarako bide-gurutzeak antolatuz eta proiektuari denbora aldetik eta espazialki proiektio handiagoa emanez diseinatu dugu transmedia proiektu osoa. Horretarako, segidan azalduko dugun bezala, hainbat medio eta plataforma erabili ditugu kontakizuna lengoia eta espresabide desberdinen bidez gorpuztuz. Hasiera hasieratik ohartu ginen gaiagatik, bere baitan hartzen duen denbora tarteagatik, istorioaren konplexutasunagatik eta xede-taldeagatik, ezinezkoa zela TIRABIRAK bezalako egitasmoa erakusketa soil batera mugatzea. Kontakizunaren luze-zabalera hobeto garatuko zela medio, euskarri eta espresabide desberdinetara eta horretarako arkitektura osoa diseinatu beharra zegoela.

Ondoko lerroetan, erakusketa fisikotik hasi eta desplegradu ditugun beste euskarrien erreparu azkarra egingo dugu, bakoitzaren berezitasuna azpimarratuz. Agerian geldituko da berehalaxe, lehen aipatu dugun bezala, produktu askok lekua izan dutela aldiberean euskarri fisikoetan eta informatikoetan eta, beti ere, bisitariari bizipen aberasgarria eskaintzeko diseinatuak izan direla, engaiamendua lortzeko asmoarekin.


### 3.1 ERAKUSKETA IBILTARIA<sup>4</sup>

Binetak dira erakusketaren elementu zentrala eta hauek ulertzeko eta testuinguru politiko-sozialean kokatzeko gehitu ditugun beste osagarriek borbildu egiten dute bisitariarentzako eskaintza. Lau multzotan daude antolatuta erakusketan ikusi daitezkeen bostehun bat binetak. Txikiagoa den lehenean, XIX. eta XX. mendeen




1. Irudia: Erakusketa fisikoaren diseinua.

hasierako bineta historikoen bidez erreparatzen da euskal gatazka. Gero, datoz A, B eta C multzoak 1977-2016 bitartean aukeratutako binetez osatuak.



2. Irudia: Gallego & Rey, El Mundo, 2000/01/24

Metalezko aldamio egitura eta egur xaflaz osatutako moduloetatik A multzoan “*Titularren talka; think tank*” izendatu dugu. Bertan kokatuta daude gatazkaren oinarrian identifikatu daitezkeen proiektu politiko desberdinen arteko borroka. Talka eta konfrontazioa ideietan, jarretan eta egiteko moduetan... horiek denak agertzen dira egunkarietako binetetan. Talka horren hamarkadetako bilakaera eta ondorio lazgarrien aztarnak eguneroko marrazkietan islatuta ikusi daitezke. Askotan, *think tank* edo ideien laborategien modura, benetako gerra tanke gisa aritu dira bineta egileak, norberaren eta bestearen mapak eta lubakiak ezarriz, onargarria eta arbuigarria dena eraikiz, hurbilekoa eta urrunekoa definituz.



3. Irudia: Maximo, El País, 1997/10/19

Alde guztietako sufrimendua azaleratzen du “*Minetak*” izeneko B moduloak. Gatazkaren ondorio latzak adierazten dituzten marrazkien eskutik sentitzen da zama bihotzean, binetak miñetan, sufrimendua han eta hemen. Egunkari desberdinek eta marrazkilari bakoitzak erakutsi nahi izan du sufrimenduaren tamaina eta bere erara irudikatu ditu bortizkeriaren ondorioak. Heriotza, jazarpena, mehatxuak, tortura, bahiketa, bazterketa... Minaren eta sufrimenduaren aurpegi desberdinak erakusten dira egunkarietako tiretan. Eta horien bidez “bestearen” oinazearen berri jasotzen dugu. Sufrimenduan batu, elkartu, parte izan...

Ahalduntzea eta gatazkatik irtetzeko gogo, saiakerak eta jarrerak, baita umorearen ere jorratzen ditu "Zaurietatik hegan egin..." delako C moduloak.

Bizikidetzera erakitzeko gogo eta indarra erakutsi ditu euskal jendarteak. Bortizkeriaren aurkako hamaika agerraldi eta protesta bizi izan ditu lau hamarkada hauetan, eta binetak mobilizazio etiko horien guztien erakusgarri izan dira. Gainera, zinta grafiko multzo honetan umore kritikoa, ironia, satira eta irripar mingotsari egiten zaio kasu. Izan ere, egunerokoa gordinegia, astunegia eta etsigarria bilakatzen denean... umorearen begirada beti izan daiteke lagungarri. Unerik gogorrenetan ere ikuspegi ironikoak zama arintzen lagun dezakeelako.



4. Irudia: Montxo, Berria, 2004/03/17

Modularitatea da erakusketaren diseinuaren oinarria baina ibilbide itxi eta norabide bakarrekoa proposatu gabe. Bisitariak, sarrera puntu desberdinak ditu eta moduluen arteko pasabideak egin ditzake erraz, nahien, interesen ala denboraren arabera. Erakusketak bisita sosegatua ahalbidetzen du, informazio geruza desberdinak eskainiz eta arreta guneez emanaz. Gainera, nahi izanez gero, audio-gida bat erabili daiteke modulu desberdinen gaineko informazio gehiago jasotzeko.

Aipatu dugun bezala, binetez hornituriko moduluez gain, badira erakusketa osatzen duten beste elementu batzuk: ikus-entzunezkoak (marrazkilariekin eginiko elkarrizketak eta sormen prozesua erakusten duena eta bideo historikoak), testuinguru informatiboa eskaintzen duen mahai erraldoi baten itxurako erakusgailua (ikus 1. argazkia), aztergai izan ditugun bineta guztien artxiboan murgiltzeko pantaila taktila eta gaiarekin lotutako liburu sorta eta kontsulta gunea. Artxibo digitala eta mahai-kronologikoa, gero ikusiko dugun modura,

bertsio digitalera eraman ditugu eta presente daude bai webgunean eta baita dokumental interaktiboan ere, hartara, fisikotik birtualera jauzia eginez.



1. Argazkia: Bilakaera historikoaren mahaia.

### 3.2. AURREZ AURREKOAK ETA BESTELAKO EUSKARRI FISIKOAK

Erakusketa ibiltariak zeharkatu dituen hiri eta herri bakoitzean ekitaldi osagarri sorta oparoa antolatu dugu marrazkilariekin, komikigintzan ala komunikabideen gaineko adituekin eta beti ere erakusketaren inguruko bizipena aberas-teko helburuarekin.

Gainera, tokian tokiko berezitasunetara egokitzen den erakusketak, egunkari itxurako argitalpen bat kaleratzen du proiektuaren zehaztasunak eskainiz.

### 3.3. ARTXIBO DIGITALA


Berrogei urteko ibilbidea egiten duen proiektuak ia 500 bineta jarri ditu ikusgai erakusketa fisikoan. Baina, arestian esan dugun modura, 1.200era heltzen da proiektu honetan hautatu ditugun binetak eta artxibo digitalean kontsultagarri daudenak.

Artxibo osoa beraz erakusketa fisikoan paratutako pantaila taktilean, webgunean eta dokumental interaktiboan ere ikusgai dago. Erabiltzailea hiru ele-

mentuen bidez murgildu daiteke bineta bilduma zabalean: datak, egileak eta egunkariak

- Datari dagokionez, lau hamarkadako binetak biltzen ditu artxiboak eta aplikazioak ahalbidetzen du 1977tik gaur arteko edozein urte aukeratzea eta bertan dauden banda grafikoak desplegatzea. Tira bakoitzak zein egunkaritan ikusi zuen argia eta data eta egilea zehazten ditu.
- Egilearen bidez sartuta artxiboan, antzerako prozedura jarraituz, marrazkilaria aukeratu eta biltegian aurkitzen diren autore horren tira grafiko guztiak ikusi ahal dira, banan banan.
- Egunkariaren araberrako sarbidea ere baliatu daiteke, kasu honetan bineta argitaratu duen euskarria aukeratu behar da.

Hiru sistema hauek konbinagarriak dira eta programak ematen du gurutzaketak egiteko ahalmena.



5.irudia: "TIRABIRAK / Tiras que aflojan" proiektuaren artxibo digitala.

### 3.4. WEBGUNEA

Erakusketa fisikoak 2016ko otsailean bere ateak lehen aldiz Bilbon ireki zituen bezperatan estreinatu zen TIRABIRAK proiektuaren webgunea ([www.tirabirak.eus](http://www.tirabirak.eus)). Bertan, egitasmoaren aurkezpena eta gainontzeko informazio orokorra, helburuak, partaideak eta egitaraua plazaratzeaz gain, webdokaren eta artxibo digitalerako sarbidea ematen da. Aurkezpen-txartel osatu eta sarbide nagusia bilakatu den webguneak beste hainbat elementu dauzka bistan: proiektuari buruz prentsan agertutako artikuluak eta bideoak, argazkiak...

### 3.5. DOKUMENTAL INTERAKTIBOA

Dokumentalgintzaren sustraietatik kimu berriak atera dira digitalizazioaren, ez-linealtasunetik eta narratiba berrien eskutik. *Web based documentary* izenarekin ezagunak diren kontakizun hauek Arnau Gifreu-ren (2012, 551) hitzetan, sarea dute joko-eremu eta ohiko dokumentalgintzaren balio guztiez baliatuz, kontatzeko era eta mekanismoak barneratu ditu. Bestek beste, erabiltzailearen eskura jartzen ditu edukietan barneratzeko aukerak ez bakarrik ikusle gisa aritu dadin baizik eta modu aktiboan nabigatu eta interaktuatu dezan, edukiak partekatu, sortu eta osatzeko bidea emanaz.

TIRABIRAK proiektuak garatu duen dokumental interaktiboak (ikus zazpigarren irudia) lau atal nagusi ditu: elkarrizketak, bisitaldi birtuala, gertakarien ardatz kronologikoa eta bineten bilduma digitala. Elkarrizketei dagokionez, honek hartuko du webdokaren zatirik garrantzitsuenetakoa. Hiru elkarrizketa multzo osatu ditugu: bineta egileak, adituak eta komunikabideetako profesionalak.



6.irudia: "TIRABIRAK / Tiras que aflojan" proiektuaren dokumental interaktiboa.



Bineta egile hauekin egin ditugu elkarrizketa dokumentalerako: Apxi, Zaldieroa, Tasio, Zulet, Ripa, Oroz, Forges, Gallego, Rey, Zabaleta, Máximo eta Peridis. Adituei eskainitako tartean, euskal gatazka gai orokor bezala hartuta eta horren inguruan duten ezagutzaz aberasteko bidea jartzen da. Besteak beste hauen testigantzak ikusi eta entzun daitezke: Irune Arnaez, Uxoa Anduaga, Josune Muñoz, Dani Fano, Juan García eta Mario Zubiaga. Akenik, komunikabideetako adituei eskainitako atalean lau hauek sartu ditugu: Nerea Azurmendi, Mariano Ferrer, Elixabete Garmendia eta Mirentxu Purroy.



7.irudia: Marrazkilariei eginiko elkarrizketak.

Erakusketa fisikoan egin dugun bezala, webdokera hurbiltzen direnentzako ere bisita gidatu birtuala antolatu dugu audio-gida eta bineta sorta aukeratuaren bidez. Aplikazio honen eskutik, A; B eta C moduloetako hainbat marrazki ikusi daitezke diaporama batean antolatuta.

Dokumental interaktiboaren beste elementu garrantzitsu bat “Mahai kronologikoa” deitu dugun erakusgailuaren bertsio digitala da eta bertan gatazkaren testuinguru sozial eta politikoaren ibilbide kronologikoa proposatzen zaigu. Egunkarietako izenburuen bidez, binetak sortuak izan ziren garaiko aktualitatea berrikusten da.

Lehen ere zehaztu dugun bezala, webgunetik bezala artxibo digitalera dokumental interaktibotik ere sartu daiteke. Beraz, 1.200 binetako bilduma erral-

doirako atea webdokean ere zabalik dago erabiltzailea bertatik abiatu dadin berrogei urte hauetan sortutako binetak gozatuz.

**ZAURIETATIK HEGAN EGIN**  
Bizikidetas eraitzeko gogoa eta indarra erakutsi ditu euskal jendarteak. Bortizkeriaren aurkako hamaika agerraldi eta protesta bizi izan ditugu, eta binetak mobilizazio etiko horien guztien erakusgarri izan dira. Begiradak ez dira ados jarri lehentasunetan, eskubide desberdinak kokatu dira askotan marrazkilarien jomugan... Dena den, binetek eskubide guztien aldeko dei etikoa egin dute. Aitzindari izan dira eskubideen bortxaketan kontrako aldarrian.

**TIRAS QUE AFLOJAN**  
La sociedad vasca ha demostrado una fuerte voluntad por construir espacios de encuentro. Durante estas décadas, la movilización contra la violencia ha sido una constante, y las viñetas han sido un reflejo vivo cuando no un acicate de esas demandas éticas. Las prioridades en la defensa de los derechos no han sido siempre coincidentes, sin embargo, casi siempre, las viñetas hacen una llamada ética constante a favor de todos los derechos. Han sido precursoras en la denuncia de la violencia y la vulneración de derechos.

Audio:  
EUS   
CAS

Menú / Mapa / Créditos / [Fotografía / Comentarios](#) / [Historia vasca / Historia completa](#)

8.irudia: Bisita birtuala egiteko diaporama.

**EL CORREO**  
20 DE OCTUBRE DE 2011. UN DÍA PARA LA HISTORIA

**¡Por fin!**  
**ETA anuncia el final de la violencia**

El dolor y la sinrazón del terrorismo dejan paso a la esperanza, tras medio siglo de sangre y duelo, tras 858 asesinatos.

2011/ETKO URRIAK 21  
**¡POR FIN!**  
ETA anuncia el final de la violencia. El dolor y la sinrazón del terrorismo dejan paso a la esperanza, tras medio siglo de sangre y duelo, tras 858 asesinatos.

Tirabirik Tiras que aflojan

EL CORREO - 2011-10-21

Menú / Mapa / Créditos / [Fotografía / Comentarios](#) / [Historia vasca / Historia completa](#)

9.irudia: Ibilbide kronologia: bilakaera historikoa gainbegiratur.

### 3.6. BESTELAKO PRODUKTUAK

Transmedia ikuspegiarekin garatutako proiektu zabal eta osatu honek, orain arte aipatu ditugun elementu horiezaz gain, erabili ditu beste hainbat espresabide eta euskarri euskal gatazkaren kontakizun binetetan nola egiten den erakusteko. Besteak beste, binetak berriro paperera ekarriz, liburu bat argitaratu dugu "Euskal gatazka binetetan / El conflicto vasco en las viñetas" titulupean (Arana eta Zubiaga 2016) eta telebistarako dokumental lineal bat ekoitzi. Azken bi hauekin, erabat borobildu dugu TIRABIRAK proiekturako diseinutako arkitektura narratiboa.

## 4. AZKEN SOLASA

Egunez egun eta urtez urte euskal gatazkaren gaia egunkarietako binetetan nola islatu den aztergai eta langai daukagu proiektu honetan. Informazio iturrien aniztasuna eta ikuspegi longitudinala bermatu nahian bineta, egile eta egunkari askoren lekukotzak jaso ditugu, bortizkera, konfrontazioa eta sufri-mendua bezalako gaiak beharrezkoa zuten metodologia aplikatuz. Baina gainera, bilketa lana eta emaitzak zabaltzeko faseak sintonian jarri nahi izan ditugu. Euskal gatazkaren inguruko kontakizun hutsa proposatu beharrean, urte hauetan argitaratu diren tira grafikoak, marrazkilarien iritziak eta tes-tuinguruak eskaini, eduki hauetara hurbiltzen direnek osatu dezaten beraien diskurtso propioa. Horretarako, proiektu zabal eta euskarri askotarikoa eraiki dugu. Transmedia unibertsio oso bat diseinatuz, TIRABIRAK proiektura hurbiltzeko ate eta lehi asko utzi ditug zabalik, nahi duenak, eskura datorkionean eta gustukoagoa duen gailu elektronikoa erabiliz, euskal gatazkaren barrunbeetan murgildu dadin. Horiatariko lengoia eta euskarri batzuk fisikoak izan dira eta beste batzuk internetek ahalbidetzen dituenak. Modu batera zein bestera, egitasmo osatua eta integrala eta elkar-konektatua gorpuztu dugu, erakusketa fisikotik webean dauden edukietara pasa ahal izateko edota liburutik interneten dauden eduki osagarriejin jarraitzeko. Ibilbide ugari eta erabiltzaileari murgiltze geruza desberdinak eskainiz sortua.

Esperientzia aberazgarria, konplexua, egile eta eragile askoren artean bakarrik aurrera ateratzeko modukoa eta, beti ere, etorkizunean egin daitezkeen beste proiektu batzuetarako abiapuntua.

Erreferentziak

- Arana Arrieta, Edorta. 2015. "Programaziogintza eta transmediatasuna". In *Transmedia Komunikazio Estrategiak: Gaurkotasun-edukiak diseinatzeko eta hedatzeko bide berriak*, Agurtzane Elordui Urkiza & Edorta Arana Arrieta, koord., 191-213. Bilbo: UEU
- Arana, Edorta & Mario Zubiaga, ed. 2016. *Euskal gatazka binetetan [El conflicto vasco en las viñetas]*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitate
- Gifreu Castells, Arnau. 2012. "El documental interactivo: Una propuesta de modelo de análisis". Doktore-tesia, Pompeu Fabra Unibertsitatea
- Izagirre Zubimendi, Anartz. 2016. "Tirabirak/Tiras que aflojan transmedia-proiektua". Gradu amaierako lana, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea
- Jenkins, Henry. 2008. *Convergence Culture. La cultura de la convergencia de los medios de comunicación*. Itzulpena, Pablo Hermida Lazcano. Bartzelona: Paidós
- Latitude (kontsultoria). 2013. "The future of storytelling, phase 2 of 2". <http://files.latd.com.s3.amazonaws.com/Latitude-FoS-Phase-2.pdf>
- Mimenza Castillo, Libe, Edurne Arana Arrieta & Bea Narbaiza Amillategi. 2016. "Transmedia eta mobilizazio sozialak: Askegunearen komunikazio-estrategiak". *Uztaro* 97: 55-77
- Moloney, Kevin T. 2011. "Porting transmedia storytelling to journalism". Ph. Thesis, University of Denver, CO. [http://www.colorado.edu/journalism/photojournalism/Transmedia\\_Journalism.pdf](http://www.colorado.edu/journalism/photojournalism/Transmedia_Journalism.pdf)
- Pratten, Robert. 2011. *Getting started in transmedia storytelling. A practical guide for beginners*, <http://www.slideshare.net/ZenFilms/getting-started-in-transmedia-storytelling?from=embed>
- Scolari, Carlos Alberto. 2013. *Narrativas transmedia. Cuando todos los medios cuentan*. Bartzelona: Deusto

Oharrak

- <sup>1</sup> *TIRABIRAK / Tiras que aflojan* proiektua oinarritzen da batetik, UPV/EHUko EMAN ikerketa taldea eta Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioaren arteko hitzarmenean (2015/05/25) eta, bestetik, UPV/EHUko Unibertsitatea-Gizartea ikerketa proiektuen barruan EITBrekin eta Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioarekin sinatutakoan (US14/48: Transmedia kontakizunak, hiritartasuna eta teknologia).
- <sup>2</sup> UPV/EHU eta Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioa. (2015). Lankidetzeta hitzarmen espezifikoa, Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioa eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko "Tira-Birak" ikerketa proiektuaren ezarpena helburutzat duena. Leioa: UPV/EHU, 11-16 orr.
- <sup>3</sup> Lerro hauek idazten ari garen unean Bilbon, UPV/EHUko Leioako kanpusean, Donostian, eta Iruñean egona da erakusketa. Gasteizko Artium museoa ere txertatu genituen proiektuaren artxibo digitala eta bideoak eta, dagoeneko, Errenteriako erakustaldia hitzartuta dago. Izaera ibiltaria duen mostra hau Baionara, Konpostelako Santiagora eta Bartzelonara eramateko lehen hartuemanak eginak ditugu dagoeneko.
- <sup>4</sup> Erakusketaren diseinu orokorra eta tokian-tokiko egokitzapena, moduluetarako euskarriak eta bineten kokapena Sahatsa Jauregi diseinatzailearen lana izan da.

(Artículo recibido 17-10-16; aceptado 08-12-16)